

ELKARREKIN GARA

Elkarrekin gara afrontuari bizkarra emateko abaroa,
elkarrekin gara hotzari epelak esaten dizkion beroa,
elkarrekin gara margula lotsagorritzeko kolorea,
elkarrekin gara ospelari itzala egiten dion argia,
elkarrekin gara malkarrak xumetzeko ordokia,
elkarrekin gara enbatak apaltzeko barea.

ELKARREKIN GARA ekimenaren manifestua

Gaur egungo Euskal Herria urte luzeetan milaka eta milaka pertsonen lan ordu zenbatezinen izerdia da. Gaur egungo Euskal Herria urte luze milaka eta milaka pertsonen ardura eskuzabalaren mapa bat da, zeinak eguneroko bizitzaren arlo guztietan txirikordatu diren ah eskergeren lurraldea osatzen duen.

Auzolana sorburu duen elkartegintza izan da urteetan gure ezaugarri behinenetakoa. Gutako inork ezagutu ote du elkarren gabeko Euskal Herriak?

Gure hiztegi orotanikoa gorputzak eta gogoak bateratzeko hitzez beteta dago: egunero erabiliagatik higitzen ez den soinekoa da gure elkartasuna, arrazoirik falta ez dutenen galderez eraiki nahi dugu elkarbizitza, berekoiaeren zilborrari erantzuteko hauspotzen dugu elkarriketa. Nola egin behar dugu bestela herri bat?

Aspaldi ohartu ginen norbanakoa askoz hobeto bizi dela gainontzeko norbanakoekin ametsak, malkoak, bizipozak, porrotak eta lorpenak partekatuta. Bestela, zertarako bizi gara elkarrekin?

Beraz, datozen urteetan, pixkanaka begirada aldatu eta etorkizun justuago bat eraikitzea helburu duen aldarria da hau:

Bada garaia merezi izan duela aitortzeko.

Bada garaia aitortu diezaigun elkarri herri honi elkarrekin egindako ekarpena.

Bada garaia balioetsi dezagun egunero-egunero elkarrekin lortzen duguna.

Bada garaia zaindu dezagun gutako bakoitzak elkarrekin guztiontzat lortuko duguna.

Zainduko ditugu egunero egunero proiektu eta ekimen berriak martxan jartzen dituzten ekintzaileak?

Zainduko ditugu zailtasunak zailtasun beti gure ondoan direnak?

Zainduko ditugu pertsoez, lurraz, komunitateaz... arduratzen direnak?

Eta komunitatearekin gure denboraren % 1 partekatuko bagenu?

Aitortza, zaintza, parte-hartzea. Elkarrekin gara xede txiki askoren helburu handia.

Soilik biztanle izateari utzita herritar bilakatzea erabaki duten milaka eta milaka lagunen engaiamenduari esker bizi gara bestela biziko ginatekeen baino hobeto.

Elkarrekin gara Herria.

IZARO
ELORZA
ARREGUI -
15396342G

Digitalki sinatuta
norengandik: IZARO
ELORZA ARREGUI -
15396342G
Data: 2022.03.28
08:57:28 +02'00'



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIER51d70d1e-733c-4ffa-a7c4-3a12217047ca**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoliza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>